



Bizkaia  
Jaurerriko  
Abokatu  
Bazkun  
Ohoretsua

Ilustre  
Colegio de  
Abogados  
del Señorío  
de Vizcaya

# URTE JUDIZIAL BERRIAREN HASIERA

# Tú que puedes

Aprovéchate de la Mutualidad de la Abogacía



M<sup>a</sup> del Prado Guzmán López  
Mutualista desde 2002

Ignacio Peña Robledo  
Mutualista desde 1997

Marta Isabel Uriarte  
Mutualista desde 1987

José Manuel Cuerva  
Mutualista desde 2008

## Tú que puedes, benefíciate de todas las ventajas de ser mutualista:

|  |  |
|--|--|
| Sin ánimo de lucro                                 | <b>Todos los beneficios para el mutualista<sup>1</sup></b>   |
| Gestión independiente de las inversiones           | <b>Persiguiendo siempre la máxima seguridad</b>              |
| Rentabilidad para tus ahorros                      | <b>4,5% en 2012 + complemento a final de año<sup>2</sup></b> |
| Tus seguros de vida a menor coste                  | <b>Gracias a nuestra especialización</b>                     |
| Ventajas en servicios bancarios, seguros y otros   | <b>Con nuestro Club Privilegia</b>                           |
| Disfruta de productos exclusivos para los abogados | <b>De previsión complementaria y seguros personales</b>      |
| Gestión profesional                                | <b>Compatible con la autogestión por los abogados</b>        |
| Costes reducidos                                   | <b>Estructura simple y distribución directa</b>              |
| Tecnología   | <b>Web interactiva para cualquier trámite o consulta</b>     |
| Transparencia                                      | <b>Información trimestral, y diaria en la web</b>            |

Para más información entra en  
[www.mutualidadabogacia.com](http://www.mutualidadabogacia.com)

escribe un e-mail a  
[buzon@mutualidadabogacia.com](mailto:buzon@mutualidadabogacia.com)

o llama al Servicio de Atención al Mutualista  
**902 25 50 50**

1. Los resultados de la Mutualidad revierten directamente en los propios mutualistas excepto el excedente que se debe destinar a reforzar la solvencia de la entidad.  
Rentabilidad a cuenta, a la que se adiciona el complemento para alcanzar la rentabilidad total del 2012. La rentabilidad histórica del Plan Universal para los mutualistas ha sido  
2. del 5,50% anual promedio desde su creación. Rentabilidades pasadas no garantizan rentabilidades futuras.

**U**rte judizial berria hasi da, ekonomia eta finantza krisian murgilduta. Krisi horrek gure etorkizunak modu gupidagabean ukitzen ditu, Justizia Administrazioa txirotuta, aurrekontu mugatuarekin, ordezeko epaile gutxirekin uzten baitu. Justizia Administrazioak, zigor instrukzioaren ohiko eginkizunean, aurrerantzean ere, ez ditu izango Euskal Polizia Autonomoari buruzko 1992ko Legean diseinatutako polizia judizialaren unitate organikoak.

Urte judizial berrian Justizia Administrazioaren sisteman injustizia izango da nagusi, tasa judizialak mantenduko baitira, eta horiek mugatu eta murrizten baitituzte justiziarako sarbidea, demandak edo errekurtsuak jartzea, ekonomikoki ahula den herritarra. Hori dela eta, zuzenbideko edozein estatutan beharrezko segurtasun juridikoa ahultzen dute.

Aurten ere, ofizio txandara atxikitako lankideek Administrazioari eskaintzen dioten zerbitzua aitortzeko borroka nekagarrian jarraitu beharko dute. Zerbitzu hori da herritarrari doako laguntza juridikoa bermatzeko erantzukizuna, eta gure kolektiboari eskatzen zaio zerbitzu hori ematea konpentsazio ekonomiko eztabaidatu baten truke.

Urte asaldatu honetan, prokuradoreek eta beste sektore batzuetako profesionalak Zerbitzu Profesionalen Legearen aurka egingo duten borroka biziko dugu.

Urte honetan ikusiko dugu zigor zuzenbidearen sistemak, askoren borondatearen aurka, atzerapena izango du, kasu batzuetan, zigor-izaera zehatzailerak sakonduko baitu zigorraren errehabilitazio-izaeraren aurrez aurre, eta hori guztia ideologikoki zatituta dagoen gizarteari aplikatzeko moduko araubide moduan. Horrenbestez, gizartearen zati bat haserre dago Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Sala Handiak zigor zuzenbidearen oinarriko printzipioaren inguruan egiten duen interpretazioarekin; izan ere, Sala Handiak ezarri du zigor luditzeak ezarritako kondena guztien gain aplikatu behar direla, eta ez 30 urteko gehieneko mugaren gain, espetxe-onurei buruzko arauen interpretazioaren atzeraeraginik ezarengatik.

Horixe da ibili beharko dugun alde "basatia" segurtasun juridikoa mantentzeko, administrazio instituzionalaren kontrol sistemak garatu eta berritzeko, jokabide ustelak behar den moduan saihestu eta jazartzeko, zigor zuzenbidearen printzipio orokorrak mantentzeko -aurrerakoak eta ebolutiboak, sortzaileak eta gizatiarrak- eta delituari erantzuteko ikuspegi berriak ezartzeko, hain zigortzailea ez den eta hezitzaileagoa den sistemarekin, eta nola ez, gure lanbidean jarduteko baldintza duinak mantenduz. Ea arrakasta daukagun.

**U**n nuevo año judicial da comienzo, inmerso en el azote de la crisis económica y financiera que marca nuestros destinos de forma inexorable por cuanto que nos lega una Administración de Justicia empobrecida, marcada por la limitación de presupuestos, por el nulo o escaso recurso a Jueces sustitutos. Una Administración de Justicia que, en su labor habitual de instrucción penal, seguirá careciendo, entre otras cosas, de las unidades orgánicas de Policía Judicial diseñadas en la Ley de la Policía Autónoma Vasca de 1992

Otro año Judicial en el que el sistema de Administración de Justicia continuará teñido de injusticia por el mantenimiento de las Tasas judiciales que limitan y restringen el acceso a la Justicia, a la interposición de demandas o recursos, al ciudadano más débil económicamente y por ende debilitan la necesaria seguridad jurídica de cualquier Estado de Derecho.

Será un año más en el que los compañeros adscritos al turno de oficio deberán mantener la agotadora lucha por el reconocimiento del servicio que prestan a la Administración- que no es sino quien posee la responsabilidad de garantizar la asistencia jurídica gratuita al ciudadano, solicitando de nuestro colectivo la prestación de ese servicio a cambio de una cuestionada compensación económica.-

Un año convulso en el que conviviremos con la intensa lucha que los Procuradores y profesionales de otros sectores desarrollarán en contra de la Ley de Servicios Profesionales.

Será un año en el que presenciaremos cómo el sistema de derecho penal aspira,- en contra de algunas de nuestras voluntades, a sufrir un retroceso al profundizar, en algunos casos, en su carácter punitivo sancionador frente al carácter rehabilitador de las penas, y todo ello, como régimen aplicable a una sociedad ideológicamente fragmentada que, en parte, clama airada contra la interpretación que la Gran Sala del Tribunal Europeo de Derechos Humanos de Estrasburgo hace del más básico principio del derecho penal, estableciendo que las redenciones de pena deben aplicarse sobre el total de las condenas impuestas y no sobre el límite máximo de cumplimiento de 30 años, por la irretroactividad de la interpretación de las normas sobre beneficios penitenciarios.

Es este el lado "salvaje" por donde deberemos caminar para luchar, entre otras cosas, por el mantenimiento de la seguridad jurídica, por el desarrollo e innovación de sistemas de control de la administración institucional, que eviten y persigan, debidamente, las conductas corruptas, por el mantenimiento de los principios generales del derecho penal- progresistas y evolutivos, creativos y humanos- que establezcan nuevas perspectivas de respuesta al delito, con un sistema menos punitivo y más educativo y, cómo no, por el mantenimiento de las condiciones dignas de ejercicio de nuestra profesión. Ojalá tengamos éxito.



**Bizkaia  
Jaurerriko  
Abokatuen  
Bazkun  
Ohoretsua**  
**Ilustre  
Colegio de  
Abogados  
del Señorío  
de Vizcaya**

**Decano / Dekanoa**  
Nazario Oleaga Páramo

**Consejo de Redacción / Erredakzio Batzordea**  
Ana Bermejo Arteagabeitia  
Beatriz Barquín Torre  
Ignacio Alonso de Errasti

**Colaboradores / Laguntzaileak**  
César Gallastegi Aranzabal  
Garazi Arraibi Larrea  
Jorge Marqueta Andrés  
Eduardo Ranedo Fernández  
Idoia Manzárraga Zamalloa  
Alberto Martínez Ruiz

**Fotografía / Argazkigintza**  
E. Moreno Esquivel

<http://www.icasv-bilbao.com/>  
[elboletin@icasv-bilbao.com](mailto:elboletin@icasv-bilbao.com)

Depósito Legal / Legezko gordailua  
2.069/1987

# ¿Problemas con tu vivienda?



**Contratos de alquiler, hipotecas, reclamaciones de rentas, desahucios,...**

**Consulta con tu abogado/a**



**ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS  
DEL SEÑORIO DE BIZKAIA**

**BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN  
BAZKUN OHORETSUA**

urria 2013

06

## BERRIAK

2013-14 urte judizialaren hasiera ekitaldia  
Zuzenbidearen Euskal Akademiak Francisco Javier Oleaga Echeverria omenduko du

Mutualistek Mutualitatean duten konfiantzari esker, kudeatutako aurrezkiaren bolumena hazi egin da, ia-ia 4.000 milioi eurora iritsi arte

Alfonso del Ríoren "Ioannes" izeneko liburuaren aurkezpena

Elkargoaren elkartasun funtsa 2014rako

Espainiako Gobernuak heriotza-zigorren aurkako nazioarteko deiarekin bat egin du



12

## INFORMAZIOA

Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuko Gobernu Batzaren karguak hornitzeko hauteskundeak

Jarduneko abokatuia izateagatik langabezia prestazioa ezeztatuta



14

## JARDUNALDIAK

Harreman publikoei, opariei eta ibilgailuei lotutako gastuen inguruko araudi berria.  
Horren eragin praktikoari buruzko solasaldia

Euskal Autonomia Erkidegoko eredu federatiboa gaur egungo krisi ekonomikoan.  
Beharrezkoa da berregituratzea?



22

## BAZKUNeko LIBURUTEGIA



24

## LEGEGINTZA BERRITASUNAK

26

## KULTUR ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAK JAKINARAZTEN DU

# 2013-14 URTE JUDIZIALAREN IREKITZE HARRERA



**Justizia Administrazioaren eraginkortasuna hobetzeko ematen diren baliabide ekonomikoek esker, saihestu egiten da enplegua suntsitzea eta erraztu egiten da segurtasun juridikoaren testuingurua sortzea, garapen ekonomikoa berreskuratzeari mesede eginez". Hala adierazi du Juan Luis Ibarra Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidentea 2013-14 urte judiziala irekitzeko harrera ekitaldian.**

Ildo horretatik, EAEANko presidentek lehendakariari adierazi dio segurtasun juridikoa eragingarri erabakigarria izango dela atzeralditik aterako gaituen bidean. Era berean, lehendakariari eta Justizia sailburuari eskatu die Justiziako Sektoreko Konferentzia sustatu dezatela, Justizia Administrazioa garapen ekonomikorako sektore instituzional estrategikoa bihurtu dadin.

Gero eta txiroagoa den Justizia Administrazioak bizi duen finantza krisiaren testuinguruaz gain, Juan Luis Ibarrek aipatu zuen presa handia daukala gizarteari erantzun instituzional bat ematea politika, ekonomia eta administrazio ustelkeriaren aurrean.

Juan Luis Ibarra,  
EAEANko presidentea:

***"Justizia Administrazioak gaitasuna du garapen ekonomikorako sektore instituzional estrategikoa bihurtzeko"***

***"Justizia Administrazioetik politika, ekonomia eta administrazio ustelkeriak eraso egiten dioten sistema instituzionala eta elkarbizitza sistema birsortzen lagundu ahal dugu eta lagundu behar dugu"***

***"Ustelkeriarena urkako borrokan, eraginkortasunak ahalegin kolektiboa eskatzen du gure burua gizarte politiko moduan ulertzeko."***

"Justizia Administrazioak –esan zuen presidentek– sistema instituzionala birsortzen lagundu ahal du eta lagundu behar du, baina neurri berean, gizarteari helarazi behar diogu zigor zuzenbidea eta "auzitegi-tako justizia" ez direla gizarte politikoa antolatzeko tresnak. Esku-hartze penala, kontrol-sistemak indartzean asmatzea ez dira ustelkeriaren kontrako borrokan eraginkortasuna gehituko duten tresnak; ustelkeriaren aurkako borrokan, eraginkortasuna lortzeko ahalegin kolektiboa egin behar da gure burua gizarte politiko moduan ulertzeko".

"Euskal Autonomia Erkidegoan –esan zuen Juan Luis Ibarrek– autuertzte kolektibo zintzo eta etikoki zuzenaren gogoeta amaitu gabearen esperientzian murgilduta gaude, eta horrek eskatzen digu kontzientzia izatea ETaren indarkeria terrorista-ren historiak markatutako gizarte garaia eta hori dela bide iraganeko indarkeri apolitikoaren biktimekiko justizia zibikoaren zorra dugula. Iraganari aurre egiteko behar hori gorabehera, biktima-eragileek haien kondena askatasun gabetzaileetan justizia lehengoratzaileren parame-

troak aplikatu ditzakete, eta horretan “justiziaren ideia-ri” buruz jasotzen den proposamen berritzailea. Juan Luis Ibarrek azpimarratu zuenez, justizia lehengoraitzailea ahalegin bat da delituaren aurreko erantzunaren zigor-dimentsioan gehiegi oinarrituta dagoen justizia penalar buruzko beste perspektiba batzuk garatzeko.

Gainera, justizia penalaren garapenak eta delitu-jarren aurreko erantzun judizialaren eraginkortasunak arrakasta izateko, ANko presidentek eskatu zituen baliabideak eta bitartekoak, oraindik gaur egun “ez baititugu behar den beste.

Lehenengo eskaerari buruz, baliabideei buruz alegia, adierazi zuen Ertzaintzarako Plan Estrategikoa, 2013-2016 aldikoa, esparru egokia dela ikerketa kriminalean eraginkortasun handiagoaren zerbitzura dauden antolaketa-baliabideak berrikusi eta modernizatzeko. Ildo horretatik, epaileek beteta ikusi nahi dugu Euskal Polizia Autonomoari buruzko Legearen 115. artikulua 1992an ezarritako Polizia Judizialaren unitate organikoak sortzeko asmoa. Izan ere, “Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioak, eginkizunak eraginkortasunez gauzatzeko, Polizia Judizialaren antolaketa instrumental zehatza behar du, Ertzaintzaren barruan sartuta, epaileen, auzitegien eta Fiskaltzaren zerbitzura eta horien mende lan egiten duena.

Bigarrenari dagokionez, Auzitegi Nagusiko presidentek adierazi zuen tasa judizialak ezartzeak ondorio kaltega-

rriak dituela, jurisdikzio zibilean eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurtsioetarako eskubidean sarbidea izateko eta eskubidea egikaritzeko murrizketa larriak baitaude. “Juan Luis Ibarrek adierazi zuen arlo horretan egiten ari diren murrizketen eraginez, auzilari ordainarazpenak eskatuta eta muga-eguneratzearen ondorioz kostuak ezarrita, ahultzen ari da administrazio publikoen jardunak zuzenbidearekin bat etortzeari buruzko kontrol judizialean”.



Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan sartzeko eskubidearen murrizketa hori, guztiz inkoherentea da hirigintza-ustelkeriaren aurkako borrokaren borondate irmoari buruz egindako adierazpenekin, kontratazio publikoan eta administrazio publikoek bitarteko autonomikoak erabiltzeari dagokionez.

Ildo horretatik, autonomia erkidegoari gonbita egin zion bertako eskumen legegile eta beterazleak erabili ditzan barruko kontrol administratiboak birkokatu, birdefinitu eta indartzeko, eta administrazio bidean errekurtsioen eta aurkaratzeen sistemaren funtzionamenduan eraginkortasuna handitzeko.

Amaitzeko esan zuen auziak ez direla tasean eta kostuen bidez konpontzen, jurisdikzioaren aurreko administrazio bidean baino (ez da batere eraginkorra, administrazio isiltasuna gehiegi erabiltzen baita). Bide horretan jorratu behar dira auziak saihesteko tresnak, eta batez ere, administrazio ustelkeriaren jarrerak egitea hasieratik mozteko kontrol mekanismoak.



# ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIAK FRANCISCO JAVIER DE OLEAGA ECHEVERRIA OMENDUKO DU

**2013ko irailaren 18an Zuzenbidearen Euskal Akademiaren zuzendaritza batzak egindako bileran oraintsu hildako Francisco Javier Oleaga Echeverria jaunaren omenez aldizkari berezia argitaratzea erabaki zuen. Aldizkarian Akademiaren idazkari estimatuaren omenezko artikulua jasoko dira, eta mezu honen bidez elkargokideak gonbitatu nahi ditugu argitalpen bereiz horretan parte hartzera.**



Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia (BAVD/ZEAA) delakoaren JADO aldizkariaren 24. zenbakian parte hartzeko gogoia duten pertsonak edo erakundeak irizpide hauek kontuan hartu beharko dituzte lanak prestatzeko orduan:

1. Materialak jatorrizkoak eta argitaragabeak izan behar dira. Lanek oraintsu hildako Francisco Javier Oleaga Echeverria jaunaren bizitzarekin edo gure idazkari ohiak bizitzan zehar landutako gai juridiko edo kulturalekin lotura izan beharko dute. Aldizkariaren zuzendariari helarazi behar zaizkio, eta, gainera, posta elektronikoz bidali behar dira honako helbide honetara: [secretaria@avd-zea.com](mailto:secretaria@avd-zea.com)

Horrenbestez, deialdi honen kopia erakunde hauetara bidaliko da: Euskadiko abokatuen elkargo profesionalak (bereziki ), Euskadiko notarioen eta jabetzaren eta merkataritza arloko erregistratzaileen elkargoari, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak, Zuzenbideko fakultateak eta Zuzenbidearen Euskal Akademiak Javier Oleaga Echeverria jaunaren lana zabaltzeko interesgarritzat jotzen dituen bestelako pertsonak edo erakundeak. Deialdiaren helburua JADO aldizkariaren 24. zenbakian parte hartzeko gonbitea luzatzea izango da.

2. Materialen neurriari dagokionez, gomendatzen da azterlanek 5-15 orrialde izatea; orrialdeok ISO A4 motakoak izan behar dira eta lerroarte 1,5ekoa izan behar da (beste modu batera esanda, azterlanek 25000 karaktere izan behar dituzte, gehienez). Azterlanak euskarri informatikoan eman behar dira, ahal bada, Word formatuan.

3. Testuak aurkezteko epea 2013ko abenduaren 31n amaituko da.

4. Egileek adierazi behar dute zein den testuaren izenburua, zein diren haien izen-abizenak, eta zein kargu edo lanbiderekin identifikatu nahi duten euren burua, artikulua goiko aldean.

5. Egileek, testuarekin batera, zenbait datu eman behar dituzte (helbidea, telefonoak eta helbide elektronikoa), JADO aldizkaria ahalik azkarren eurekin harremanetan jar dadin.

6. JADO aldizkariari argitaratutako testuen laburpena jasoko du; laburpen hori egileek eurek prestatu behar dute, eta testuare-

kin batera aldizkariari helarazi behar diote. Laburpenak, askoz jota, 1000 karaktere izan ditzake (beste modu batera esanda, lerroarte 1,5ekoa izanik, laburpena ISO A4 motako orrialde erdikoak izan behar da, gutxi gorabehera). Orobat gaineratu behar dute egileek gaiari buruzko gako-hitzen zerrenda (gehienez ere, 5 gako-hitz izan daitezke).

7. Testuaren barruko atalak zein izan eta atal horiei buruzko aurkibide laburra jarri behar da testuaren hasieran.

8. Testuaren irakurleei erraztu behar zaie egileek egindako baieztapenen iturriak bilatu ahal izatea, eta, orobat, artikulua puntu zehatz bati buruzko ikerketa sakontzea. Hori dela eta, oin-oharrak erabiltzea gomendatzen da.

9. Berebat gomendatzen da azken atala bibliografiari buruzkoa izatea. Atal horretan jaso behar dira testua prestatzeko erabili diren lanak edota testuaren gaiari buruz eredu garri izan daitezkeenak.

10. Egileek, testuaren edukia antolatzen dutenean, sarrera idatzi behar dute, testuaren xedea definitzeko; ondoren, gaia garatu behar dute, eta, garatze horretan, egileak egoki ikusten dituen datuak eta argudioak jaso behar dira; eta, bukatzeko, ondorioetan, proposamena, balorazioa edo azken hausnarketa egin behar da.

11. Bibliografia aipatzeko orduan, honako sistema hau erabiltzea gomendatzen da:

Abizenak, Izena, «Artikuluaren izenburua», Aldizkariaren edo liburuaren izenburua (aldizkariaren izenburua siglaren bidez eman bada, hori ez da etzanez idatzi behar), liburukia, zenbakia, argitaratze-hiria, argitaletxea, argitaratze-urtea, aipatu beharreko orrialdeak.

12. Legeak aipatzeko orduan, honako eredu hau bete behar da (edo, bestela, kasuan kasuko antolamendu juridikoan ohiko den ereduak):

Ex.: Ley 1/1998, de 7 de enero, de política lingüística.

Ad.: Hizkuntza-Politikari buruzko urtarrilaren 7ko 1/1998 Legea.

13. Siglak punturik gabe idatzi behar dira; esate baterako, HPL. Erabilera urriko siglaren bat artikuluan lehen aldiz agertzen denean, izen osoa idatzi behar da, eta, ondoren, sigla jarri behar da kakotzen artean.

14. Materialak jatorrizko hizkuntzan argitaratuko dira, gaztelaniaren eta euskararen kasuan. Dena dela, frantsesez eta ingelesez idatzitako lanak ere onartuko dira. Artikulu batean artikuluko hizkuntza erabiltzen ez bada, dena delako berba, esamolde edo aipamen horiek letra etzanez idatziko dira.

Aldizkariaren aleak eskuragarri izango dira formatu digitalean Akademiaren web gunean: <http://www.avd-zea.com>.

# MUTUALISTEK MUTUALITATEAN DUTEN KONFIANTZARI ESKER, KUDEATUTAKO AURREZKIAREN BOLUMENA HAZI EGIN DA, IA-IA 4.000 MILIOI EURORA IRITSI ARTE

**Abokatuzaren Mutualitateak abuztuaren amaieran 3.977 milioi euroz ituen aurrezki kudeatuan, 2012ko aldi berean baino %32,15 gehiago**

2013ko abuztuaren 31ra arte, mutualisten ekarpenak %23,80 hazi dira aurreko ekitaldiko aldi bearekin alderatuta. Guztira 263 milioi euro lortu dira.

Aipatzekoa da egindako ekarpenak ez direla bideratzen soilik plan profesioaletara, baita aurrezki-inbertsioko produktuetara ere, hala nola Aurrezki Malguaren Sistemara eta Biziar-teko Errenta Ordainduen Produktua. Abuztuaren 31ra arte, 37 eta 40 milioi euroko ekarpenak izan zituzten, hurrenez hurren.

Bi produktu horiek, Aurrezki Malguaren Sistema eta Biziar-teko Errentak, bide proposak dira mutualistek orain arte beste finantza-erakunde batzuetan edo errentagarritasun gutxiagoko finantza-tresnetan zituzten aurrezkiaren errentagarritasuna bideratzeko.

Mutualisten konfiantza horri eta aktiboen zoroko finantza-errendimenduei esker, kudeatutako aurrezkiak %32,15 hazi da 2013ko abuztuaren amaieran. 3.977 milioi euro lortu dira, hau da, aurreko urteko aldi berarekin alderatuz, 404 milioi euro gehiago lortu dira.

Mutualitatean zure inbertsioen zorroaren errentagarritasunaren egonkortasunari eusteko apustua egiten jarraitzen dugu. Azken urteetan beste aurreikuspen tresna batzuek, hala nola pentsio planek, lurrunkortasun handia izan dute. Funtz administratuen kudeaketaren emaitza moduan, Mutualitateak, 2013ko abuztura arte, mutualisten kontuetan %4,5 itzuli du. Hori gorabehera, finantza-errendimenduekin, gastuetatik garbi daudenak, eta inbertsioen batez bestekoaren gainean lortutako hornidurekin 2013rako %5eko errentagarritasuna dago helburu moduan. Helburu hori Plan Unibertsalari eta Plan Juniorri aplikatzen zaie.

Kudeaketaren beste alderdi garrantzitsu bat administrazio gastuak dira. Kudeatutako aurrezkiaren gaineko kudeaketa komertzial eta administratiboaren gastuak jaitsi egin dira, 2012ko abuztuko %0,33tik 2013ko %0,32ra. Gainerako aurreikuspen tresna gehienek gastuak baino baxuagoak dira.

Mutualitateak egindako inbertsioen politika etengabea izan da azken urteetan. Printzipio aizan da kudeaketa kontserbadoreari eustea, errentagarritasunak maximizatzearekin eta arrisku murriztuarekin bateragarria dena. Hori dela eta, ziurrenik entitateak epe luzera hazi egingo da, kudeaketa ereduaren arabera.

## ALFONSO DEL RIOREN "IOANNES" LIBURUAREN AURKEZPENA

Pasa den irailaren 19an gure lankideak Ioannes bere lehen liburua aurkeztu zuen Urkijo zumardian kokatuta dagoen Casa del Libro liburu-dendan.

Juan Carlos Ercoreca –Bilbao Dendak eta Bizkaiko Txakolina JI elkarteetako lehendakaria– izan zen aurkezlea. Aurkezpenean liburuaren sarrera egin zuen eta jarraian gertakizunen kontakizun zirrargarria eta historiaren tratamendua goraiatu zituen. Aspalditik ezagutzen duen idazleari buruz hitz egin zuen eta jendea liburua erostera animatu zuen, merezi du eta.



Ondoren, Alfonsok liburuaren jatorriak azaldu zituen eta hainbat hilabete bete zuen dokumentazio lana kontatu zuen. Liburua idazteko ideia Venezian sortu zen, izan ere, Venezia, jaio zenetik eta Italiako Errepublikan sartu arte, historia landu gabea izan du. Oso interesgarriak izan ziren egilearen azalpenak liburuaren argitaratze prozesuari buruz eta argialetxeen munduari buruz. Azkenik, liburua arrakastatsua izan dela aipatu zen, kritika onak jaso baititu eta laster bigarren edizioa aterako baita.

# BAZKUNAREN ELKARTASUN FUNTSA 2014. URTERAKO

Zuetariko askok dakizuenez, gure Bazkunaren aurrekontuen zati bat Elkartasun Funtsa hornitzeko erabiltzen da. Elkartasun Funtsa hori Mutualitatearen Gizarte Ekintzaren orde zari zen abian, larri samar dabilizan lankideak edo senideak laguntzeko.

Elkartasun Funtzaren prestazioen onuradunak hauek izan daitezke:

- a) Elkargokideak; horretarako elkargokidea hamar urtez –jarraian edo aldizka– jardunean aritu behar izan da eta honen moduko kasu batean egon: erretiroa, ezintasun iraunkorra, osoa edo erabatekoa, edo antzeko egoerak.
- b) Elkargokide baten alarguna; horretarako elkargokidea hamar urtez –jarraian edo aldizka– jardunean aritu behar izan da.
- c) Umezurtzak: 25 urtetik beherakoak edo 25 urtetik gorakoak, kasu berezi batzuetan, hala nola, ezintasuna %65koa edo gorakoa bada, guraso ahala luzatu denean, edo zaintza edo jagoletza dagoenean, inguruabar horiek dirauten bitartean.

Eskaera egiteko inprimakia eta dokumentazioa aurkeztu behar da erregelamenduaren (Reglamento Regulador de las Prestaciones del Fondo de Solidaridad del Ilustre Colegio de Abogados del Señorío de Bizkaia) 10. artikulua ezartzen duena kontuan hartuta. Erregelamendua elkargoaren web orrialdean ikusteko aukera dago, lotura honen bidez: <http://www.icasv-bilbao.com/circulares.aspx>.

Aurtengo deialdia 2013ko urritik 2014ko irailera doa baina urte bitartean ustekabez gertatuko bazen zerbait, posible izango litzateke eskabidea edozein momentutan egitea; ondoren eskabidea aztertu eta beharrezkoa bada, dena delako laguntza emango da

Bazkunaren Gobernu Batzordeak aurkeztutako eskabideetatik 12 onetsi zituen, urriaren hasieran egindako bilkuran. Gaur egun gure aurrekontuetan 100.000 € daude Elkartasun Funtsa hornitzeko. Horrela, posible da egoera larrian daudenei laguntzea, lankideon elkartasuna behar duten unetan.

## ESPAINIAKO GOBERNUAK HERIOTZA-ZIGORRAREN AURKAKO NAZIOARTEKO DEIAREKIN BATE GIN DU

**2013ko urriaren 10a.- Espainiako Gobernuak heriotza-zigorren aurkako munduko eta Europako egunarekin bat egingo du gaur. Egun hori 2003an ospatu zen lehenengoz, heriotza-zigorren aurkako Munduko Koalizioak egindako dei bati erantzunez. Koalizio horrek biltzen ditu mundu osoko gobernuz kanpoko erakundeak, abokatuen elkarteak, sindikatuak eta gobernuak. Ordutik, urtero, urriaren 10ean ospatzen da heriotza-zigorren aurkako munduko eta Europako eguna. Izan ere, 2007an, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak data hori heriotza-zigorren aurkako data izendatzea erabaki zuen.**

Heriotza-zigorra Espainiako kanpo politikaren lehentasunetako bat da giza eskubideen arloan. Azken urteetan Espainiak heriotza-zigorren aurka erakutsitako jarrera tinkoaren emaitza moduan, Heriotza-zigorren aurkako Nazioarteko Batzordea sortu eta babestu da, eta batez ere, 2013ko ekainean, heriotza-zigorren aurkako Munduko V. Kongresua egin da Madrilan.

Madrilgo Munduko Kongresua erabateko arrakasta izan zen, neurri batean, Espainiak herrialde anfitrioi moduan

eskaintako babes ekonomiko, politiko eta logistikoari esker. Kongresu horretan agerian jarri zen munduko estatuen 2/3 heriotza-zigorra behin betiko indargabetzearen alde dauden arren, estatuen 1/3 oraindik zigorraren alde daudela, eta kasu batzuetan, heriotza-zigorra aplikatzean nazioarteko zuzenbidean aitortutako gutxieneko bermeak urratzen dituztela. Horregatik, heriotza-zigorren aurkako kongresu hori beharrezko geldialdia izan zen gogoeta egiteko, sareak sortzeko eta heriotza-zigorren aurkako nazioarteko esparruan planteatzen dituen erronkei aurre egiteko estrategiak diseinatzen jarraitzeko; izan ere, nazioarteko esparrua gero eta konbentzituago dago zigor hori erabat iraingarria, jasanezina eta umiliagarria dela.

Espainiak eginkizun aipagarria izan du beti eta hala aitortu dute beste estatu batzuek heriotza-zigorra indargabetzea defendatzen nazioarteko hainbat forotan, hala nola Europar Batasunean, Europako Kontseiluan, ESLAn eta Nazio Batuetan. Ildo horretatik, Espainiak babestu egin ditu bi urterik behin New Yorken eta beste herrialde batzuetan **egiten diren kanpainak boto gehiago lortzeko Nazio Batuen Batzar Orokorrean heriotza-zigorren moratoria unibertsalaren aldeko ebazpena izateko.**



## 2013KO URRIAREN 4KO ERABAKIA. HORI DELA BIDE, GOBERNUAREN ADIERAZPENA ONESTEN DA HERIOTZA-ZIGORRAREN AURKAKO MUNDUKO ETA EUROPAKO EGUNA DELA ETA

Ministroen Kontseiluak Adierazpen hau onetsi du heriotza-zigorren aurkako munduko eta Europako eguna dela eta:

Heriotza-zigorren aurkako lehen eguna munduan 2003an egin zen, heriotza-zigorren aurkako Munduko Koalizioak egindako deiarri erantzunez. Koalizio horrek biltzen ditu mundu osoko gobernu kanpoko erakundeak, abokatuen elkarteak, sindikatuak eta gobernuak. Orduetik, urtero-urtero, urriaren 10ean heriotza-zigorren aurkako munduko eguna ospatzen da. Era berean, 2007ko irailaren 26an, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak erabaki zuen data hori heriotza-zigorren aurkako Europako egun izendatzea.

Heriotza-zigorra indargabetzearen oinarria Eskubide Zibila eta Politikoen Nazioarteko Itunaren Bigarren Protokoloa da, eta Espainia bertako alderdia da. Horretan ezarri da heriotza-zigorra erabat indargabetzea estatu kide guztietan.

Espainiarentzat giza eskubideak gobernu-jardunaren, sistema judizialaren, kanpo politikaren eta lankidetzaren funtsezko osagaia dira. Heriotza-zigorra indargabetzea kanpo politikaren lehenetsua da giza eskubideen arloan.

Espainiako Gobernuak berriro ere adierazten du heriotza-zigorren aurka dagoela inguruabar guztietan, egindako krimena gorabehera. Heriotza-zigorra zigor ankerra, jasanezina eta umiliagarria da, eta giza eskubideak urratzeaz gain, ez du disuasio-eragin frogaturik jokabide kriminalean. Gainera, akats judiziala egonez gero, ondorio konponezinak eragiten ditu.

Espainiak, beste estatu askorekin batera, koalizio zabala osatzen du, eta guztiek Nazio Batuen ebazpenak onestea sustatu zuten 2007, 2008, 2010 eta 2012an heriotza-zigorra aplikatzearen munduko moratoriari buruz. Ebazpen horietan ikusitako babesak, 2012ko abenduaren 20ko ebazpenak 111 boto alde izan baitzituen, berretsi egiten du nazioartean heriotza-zigorren

aurkako joera gero eta orokorragoa dagoela. Nazio Batuetako kide diren 193 estatuetatik 150ek heriotza-zigorra indargabetu dute edo betearazpenetan moratoria bat gehitu dute. Baina oraindik herrialdeen heren batek heriotza-zigorra aplikatzen dute eta heriotzako askok ez dituzte errespetatzen nazioarteko zuzenbideak zigorra aplikatzeko ezartzen dituen gutxieneko bermeak: estatu batzuentzat, heriotza-zigorra estatuko sekretua da eta ez dute informaziorik ematen kondenei edo exekuzio kopuruari buruz; zigor-sistema batzuetan, heriotza-zigorra nahitaezkoa da delitu jakin batzuetan, epailei inolako tarterik utzi gabe; askotan, epailetan ez dituzte gutxieneko bermeak betetzen eta, batzuetan, heriotza-zigorra ezartzen zaie homosexualitateari, biraoari, adulterioari eta droga-trafikoari; eta batzuetan adingabeak exekutatzen dituzte.

Hori dela eta, Espainiak nazioarteko foroetan ahaleginak egiten jarraituko du heriotza-zigorren moratoria eraginkor eta unibertsala aplikatzea lortzeko, erabat indargabetzearen aurretik eman behar den pauso moduan.

Heriotza-zigorren aurkako konpromiso hori betetzeko, Espainiak jarraitzen du heriotza-zigorren aurkako Nazioarteko Batzordearen lanak babesten. Erakunde horren egoitza Genevan dago, Espainiaren ekimenez sortu zen 2010eko urrian, eta ospe handiko pertsonak biltzen ditu. Kideek nazioartean esperientzia handia dutenez, eragiteko eta solasean aritzeko gaitasun handia dute.

Horrez gain, 2013ko ekainaren 12tik 15era, heriotza-zigorren aurkako Munduko V. Kongresua egin zen Madrilan, gizarte zibilak antolatuta, Espainiaren, Norvegiaren, Suitzaren eta Frantziaren babesarekin. Kongresuak arrakasta handia izan zuen, kontinente guztietako mila pertsona baino gehiago bertaratu baitziren, heriotza-zigorra indargabetu ez duten herrialdeetako ordezkari politikoak barne. Madrilgo Kongresuan argi geratu zen argudio juridiko eta tekniko sendoak daudela heriotza-zigorra baztertzeko, eta indargabetzearen aldeko borroka ez dela Europara mugatzen, borroka unibertsala baita.



## SOLUCIONES INTEGRALES DE GESTIÓN DOCUMENTAL, OCR EDITABLE, FACTURACIÓN ELECTRÓNICA Y DIGITAL

SISTEMAS DIGITALES MULTIFUNCIÓN - FAX  
INFORMÁTICA PROFESIONAL - GESTORES DOCUMENTALES



**selzur**  
SOCIO TECNOLÓGICO

Plaza Ibaiondo 4 - Parque Empresarial Ibaiondo - 48940 Leioa - Vizcaya  
Teléfono: 94 442 52 16 | FAX: 94 442 58 43  
email: [administracion@selzur.com](mailto:administracion@selzur.com)  
[www.selzur.com](http://www.selzur.com)

# BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN BAZKUN OHORETSUKO GOBERNU BATZAREN KARGUAK HORNITZEKO HAUTESKUNDEAK

Abokatuen Bazkun Ohoretsu honen Gobernu Batzak adostutakoaren arabera, 2013ko urriaren 3an egindako bilkuran, aipatutako Batzaren karguak hornitzeko hauteskundeak deialdia egitea erabaki da, jarraian zehazten den moduan:

1. Hornitu beharreko karguak honakoak dira: Dekanoa; 4., 5., 7. eta 9. Diputatuak; eta Diruzaina.

2. Kargu horien iraupen epea bost urtekoa izango da (Abokatutzaren Estatutu Orokorren 49.2. artikulua).

3. Abokatutzaren Estatutu Orokorren 49.1. artikulua xedatzen duenaren arabera, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren esparruan hautesle egoiliarak direnak aurkeztu ahal izango dute euren burua hautagai izateko, baldin eta hurrengo egoera batean ez badaude:

- a) Kargu publikoetarako desgaikuntza edo esekipena daroan epai irmo batek zigortu izana, aipatu zigor horiek irauten duten bitartean.
- b) Edozein abokatu elkargotako diziiplina zehapena jaso izana, birgaitzen ez duten bitartean.
- c) Bestelako elkargo profesioaletako organo zuzendarien kide izatea.

Hauteskunde deialdia baino hiru hilabete lehenago elkargokide diren guztiek parte hartu ahal izango dute hautesle modura.

4. Inork ezin izango du bere burua aurkeztu deialdi berean hornitu beharreko kargu baterako baino gehiagorako (Abokatutzaren Estatutu Orokorren 49.3. artikulua).

5. Hauteskundeetan, jardunean ari diren abokatuen botoak balio bikoitza izango du beste elkargokideekiko, eta botoen gehiengoa lortzen duen hautagaiak jasoko du hautetsi izaera. Berdinketarik bada, jardunean ari direnen artean boto gehien jaso duena izango da hautetsi; horrela ere berdinketak jarraitzen badu, jardunean denbora luzeagoan aritu dena izango da; eta horrek ere berdinketa apurtzen ez badu, adin nagusiagokoa (Abokatutzaren Estatutu Orokorren 43.4. art.)

6. Hauteskundeak 2013ko azaroaren 28an, osteguna, izango



dira; mahaia 09:00etan eratu da eta 19:00etan itxiko.

Bazkuneko egoitzan egingo da hauteskundea, Bilboko Uribitarteko Aldapak, 3., beheko solairuan.

7. Hautagaitza Bazkuneko Idazkaritzan aurkeztu beharko da, Bilboko Uribitarteko Aldapak, 3, bigarren solairuan, hauteskundetarako finkatutako eguna baino 15 egun lehenago. Epe amaiera 2013ko azaroaren 12an, 19:00etan, izango da.

ta, izango da.

Hautagaitza horiek taldekakoak izan daitezke zenbait kargu ezberdin hornitzeko, edo banakakoak kargu jakin baterako. Hautagaiak euren baimo ezin izango dituzte izenpetu.

8. Gobernu Batzordeak, aurkezpen epea amaitu eta hurrengo egunean izendatuko ditu hautagaiak, legezko eskakizunak betetzen dituzten artean. Une berean, kargu jakin baterako aurkaririk ez bada, hautagai bakarra hautetsi izendatuko du.

9. Hauteskunde prozesuan zehar, edo bere emaitzaren aurka Gobernu Batzordearen aurrean, errekurtsorik jartzen bada (Abokatutzaren Estatutu Orokorren 49.5. artikulua), efektu bakarrean onartuko dira errekurtsio horiek, eta ez dute bozketa etengo, ezta hautetsien izendapena eta kargu hartzea ere, baldin eta bestelakorik adosten ez bada berariazko ebazpen arrazoitu baten bitartez, salbuespenezko zioak medio.

Deialdi honekiko Gobernu Batzordeak hartu duen berariazko erabakiaren arabera, indarrean dagoen Abokatutzaren Estatutu Orokorren (658/2001 ekainaren 22ko Errege Dekretuak onartu zuenak) aurrekusten ez duen edozein gaitan, eta arauketa berririk onartu ezean, honako hauteskunde hauetan antzinako Estatutu Orokorren (Uztailaren 24ko 2090/1982 Errege Dekretua) hauteskunde prozedura arlo honetan ezartzen dituen arauak aplikatuko dira.

Beraz, Bazkuneko kide guztiei jakinarazten zaie, Abokatutzaren Estatutu Orokorren eta honekin bat datozen bestelako Xedapenek ezarritakoaren efektuetara.

Bilbo, 2013ko urriaren 7an.

# LANGABEZIA PRESTAZIOA EZEZTATZEA JARDUNEKO ELKARGOKIDE IZATEAGATIK

*Xandra García Trapote. Abokatua*

## Bizkaiko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Probintzia Zuzendaritzaren ohiz kanpoko ebazpena abokatu elkargokidearen aldeko langabezia prestazioa kapitalizatzearen inguruan

Oraintsu emandako administrazio-ebazpen bat oso intergarria da abokatu kolektiboarentzat, zehatz esanda 2010/2011ko promozioetakoentzat. Behar den besteko informazioa ez genuenez, elkargokide egin ginen jarduneko abokatu moduan, une horretan jarduneari arituko ginen edo ez jakin gabe. Guk, lizentziatuak ginenez eta ez graduiko ikasleak, lanbidean sartzeko azterketa izango zena saihestu nahi genuen. Hain zuzen ere, azterketa hori indarrean jarriko zen hau indarrean jartzean: 775/2011 ERREGE DEKRETUA, ekainaren 3koa; horren bitartez Auzitegiaren abokatu eta prokuradore izateko sarbidearen urriaren 30eko 34/2006 Legearen ERREGELAMENDUA onartzen da.

2013ko iraileko ebazpen hori eman arte, jarduneko abokatu moduan elkargokide bihurtutako abokatuak, jarduneari aritu ez arren baina inoren konturako beste lanbide batzuetan aritu baziren (nire kasuan, unibertsitateko ikasketekin batera), langabezia prestazioa kapitalizatuta eskatzeko unean, ukatu egiten zuten Administrazioak aurrerapuzatzen baitzuen Elkargo Ofizial eta Profesional bateko kide izatean, jardunekoaren modalitatean, esan nahi zuela ordutik arlo horretan lan egiten zuela.

Nire bokazioak bultzatuta, eta batez ere, beste sektore batzuetan lanean aritzeagatik egokitzen zitzaidan prestaziorako eskubidea erreklamatzeko, horri esker nire herrian lanpostu bat sortu ahal izango bainuke, nire borroka partikularra hastea erabaki nuen. Sortu nuen bulego txikiko lehenengo kasu handia bihurtu zen. Ilusioa ez zizkidaten kenduko, eta lan egiteko gogoia askoz gutxiago.

Ordura arte, gaztea nintzenez, ez nuen horrelako egoerarik eza gutu. Eta orain egunero-egunero karrerako irakasleentako batekin gogoratzen nintzen, Demetrio Loperenarekin, eta arrazoia ematen zion, gure bizimoduetan administrazio-zuzenbidearen beharra genuen. Izan ere, 2013ko martxotik irailera etengabe idazkiak idazten eta aurkezten ibili nintzen administrazio-bidearen amaieraraino heldu arte, lan arloko jurisdikzio bidearen aruko kasuan kasuko erreklamazioa idatzi eta aurkeztuta.

Baina hasieratik hasiko naiz. Langabezia geratzen diren langile guztien kasuan bezala, nire lehenengo pausoa 2012ko irailean langabezia prestazioa eskatzea izan zen. Prestazioa onartu zidaten, niri egokitzen zitzaidan eskubidea baitzen. Egun horretan bertan, prestazioa kapitalizatzearen prestazioa kapitalizatzearen betekizunei buruzko informazioa eskatu nuen bulego bat sortu ahal izateko, eta autonomoetan alta eman behar nuen edo ez galdetu nuen. Azken puntu horri buruz esan zidaten, abokatuak Langile Autonomoen Araubide Bereziaren alternatiba zen eta den Mutualitatekoak garenez, ez zela beharrezkoa baina egoera hori egiaztatzearen dokumentazioa aurkeztu behar nuela. Modu berean, azaldu zizkidaten Estatuko Zerbitzu Publikoak eskatutako betekizunak, eta nik bete egin behar nituen nire prestazioa kapitalizatu ahal izateko. Hauek ziren:

1. Langabeziaren ondoriozko prestazio kontributibo baten onuraduna izatea eta, eskaera jasotzeko unean, hiru hileko behintzat jaso gabe izatea.
2. Aurreko lau urteetan eskubide hori erabili gabe izatea, eskubide horren edozein modalitatean.

3. Lan elkartuko kooperatiba batean edo lan sozietate batean, sozietate berri batean edo funtzionatzen ari den batean modu egonkorrean bazkide langile moduan sartu izana egiaztatzea.

4. Langile autonomo moduan jarduera bat egitea egiaztatzea.

